

Batua bakandu

INAKI SEGUROLA



ERABAKIA nuen 'euskarari buruz' egundo ez idaztea: batere onik ez egiten neri hitza betiere gai eta tema gisan mututirik ikustek. Nerez mudakorra izan ordea, eta haizeak bestera narama.

Hala dio euskaltzaleen bibliak: «Eta Jainkoak erran zuen: izan bedi euskara batua; eta euskara batua egina izan zen. Eta Jainkoak ikusi zuen euskara batua ona zela». Bilbia horrek esaten ez duena da nola sortu zen euskara batuaren sabel birjinazkoan, Izpiritu Antzueren obran, ume bat baxtarta eta zazpikia, izenez 'euskara bakandua', batua soildu eta larrutuaren poderioz mundura jaioa.

Gizon hipersumiso biziogzagabeak ('Ore-reta' folklorismo abertzalearena bezala, 'ohiko' da hipersumisioaren hitz kuttuna, seminarioan, soldaduskian edo Gizakia Helburu-n egondako jendeak maite duena), delako gizon horiek, diot bada, Jainkoa bera baino jainkotiarago izan nahiz, Legearen idolatrian amildu ziren usiez-ustekabe, eta lehen lege-beldur izanak lege-gose eta arau-egarri bilakatu ziren. Antzina euskarak menderatzen zituen gizon-emakume haien ondorengoak euskara zeharo menderatzen iritsi ziren, legez eta arauz, erabakiz eta gomendioz. Lehenbizi irakatsi zuten ordua nola adierazi, eta gero, ikusiz 'jendeak' obeitzen ziela gaixo hil-hurrenak medikuaren agindue bezain etsituki, bizimoduaren gainerako alderdi guztiak finkatu zituzten hitzez: eguraldiaz nola mintzatu, kolpe bat hartuakoa zer esan, amodioa nola deklaratu... eta abar luze azkengabe bat.

Horrela igan zen euskara bakandua bere goien gradora eta bertze orenen gainera; printze eta jaun handiek ere huraxe ikasi nahi. Oharturik ez ziela parenik txukun eta xuxen mintzatzeko eta, bereziki, literatura garaikidea egiteko edo txostenak erredaktatzeko, hau da, ezer ez esateko.

Txetxeniarrez

TXILLARDEGI



TXETXENIA gora. Txetxenian behera: zer non dira txetxeniarak?

Bi hitzetan ezin esan, jakina. Baina egun hauetan entzun ditazkeen begiegierika batzuk konpontzeko balio dezake honek agian. Erusia izeneko Errepublikak 16 'Errepublikak Autonomo' du bere barruan: Kaelia, Kalmukia, Udurmurtia, eta abar. Hamasei horietako bat Txetxenian da (Txetxeno-Inguskaita, omen); Kaukasoko Mendikate famatuaz Iparraldean. Georgia, alderantziz, Kaukasoz Hegoaldea dago. Azkeneko Erroldaren arabera, Txetxenian Errepublika Autonomoak 1.156.000 biztane ditu. Txetxeniarak 745.620 lagun dira (% 64,5), eta errusiarak 335.240 (% 29,0).

Hitz batez: petrolioaren eta industriakuntzaren eskutik gertatu da erusiarren 'inbasioa' (nolazpait esateko); eta fenomenoa orain dela mende erdikoa da. Ez zaharragoa.

Txetxeniarak bi multzo nagusi dira: Txetxeniarak (% 80) eta Inguxiarak (% 20). 'Lehengusu propioak' izanik, norke bere dialektoaz hitzeginez ere, elkar ulertzen dute.

Euskaldunekin ahaidetasun urruna izan bide dezaketen Ipar-kaukasiar hauek eragatiboa dute; azentu nagusia ezkerretatik hasi eta lehengo silaban jartzen dute (txekiarek bezala); eta izenen deklinabidean, 'klaseak' dituzte (euskaraz balde areago). Kontsonante piloa dute (berrogei bat); eta aspiratuak eta glotalizatuak berezitan dituzte.

Hego-Kaukasoa, esan beharrik ez, katveliarak daude; 'georgiarak'. Bai hauek eta bai txetxeniarrek, zenbait puntutan antz harbia iriak erakusten dituztelarik. Bidenabar esateko: ez dira indo-europarrak...


Baina beren burua 'mendialdeko gizonak' bataiatu duten Txetxeniarak, milioitu bat besterik ez dira; eta erusiarak 138 miloi 1979an... Gainerakoaz ezer esan beharrik ez dago: ongi ezagutzen du irakurleak...

HEMEROTEKA

Ekaitza

Milesker Bayrou!

Bai zinez eskertu behar dugu hezkuntza nazionalako ministroa, 'gure' departamenduko burua eta orain CDS alderdiko lehendakaria: hagin zorrotzak dituen 'otso gazte' hori. Bildots larruz bezitirik bezala, dena irri eder, dena elhe eder, dena formula eder ezagutzen ginuen Bayrou jauna. Ospe handikiko gizontzat zaukaten aintzek Euskal Herria, bereziki duela bi urte Irri-sarrin ondarearen egunean egin zuen prediku famatu hortaz geroztik. Abertzaleetan ere batzuk sinetsi zuten. Zentristak modan jarri ziren hemen gandi. Kantonaletan ere Maule eta Bagorria



EL ROTO / DIARIO 16

adibidez biziki aipu izan ziren hain zuzen bi kasu horietan, abertzale batzuk Bayrou-ren bizinari laguntzeraino heldu baitziren. Betiko jelo eta pragmatismoaren izenean.

Geroztik Bayrou-k Seaskarekin hitzarmena izenpetu du. Inchauspe aldiz euskal departamenduen arrapiztaile: bien arteko zoingehigokoa, faltsukeria- ren zoingehigokoa! Eta berriz ere

abertzale batzu loriaturik! Bayrou gure kulturaren salbatzailea. Inchauspe aldiz Garat berri baten antzera, ixtorioa markatu nahian euskal lurraldetasunaren defenditzailea... eta oraino aldi bat gehiago zoritxarrez abertzaleetan batzu esku zartak... Nola debru posible da hein hortaraino engainatzea abertzaleak. Noiz artio jaun horiek erranarekin, edo alegia eskaintzen daukatunarekin kontent geldituko dira abertzale batzu. Agian, Parisen legebiltzarrean, 3B delakoarekin izan den mazarrada ikusita gure artean batzueri begiak idekiko ditzkie.

Milesker Bayrou! Hor azkenian zure egiazko aurgiea erakutsirik! 'Bayrou dena gezur' zioen EMAREN daukatunak uda huntan. Etzen segur gezurra!!
PANPI SAINTE MARIE

UZENDARIARI

Lazaro Carreter

F. Lazaro Carreter Real Academia de la Lengua Españolaren Lehendakaria Espainiako Presidenteari bidalitako gutunak bazterrek harrotzea lortu du. Hor espainiera Katalunyan diskriminatutik dagoela dio eta bai hor eta bai teoriak elebidunak diren beste komunitate autonomoetan espainiera babestea eskatzen du. Honen segidian Asociacion Colegial de Escritores de España-ko asanblada orokorrean bertako presidentek dimisioa aurkeztu zuen berak asoziazioa Carreteren jarraitzearekin lerratu nahi zuelako eta asanbladak hortarako ezetza eman zuelako.

Nik nire aitetik gogora ekarri nahi dut Euskaltzaindiak domina bat eskaini ziola ez orain denbora asko Lazaro Carreter jaunari eta 'Estatuoko hizkuntza ezberdinen elkarbizitza- ren alde' eskaini hain zuzen ere. Honez gero Euskaltzaindiak Lazaro Carreterri emandako erantzun legitimitatea galdutez. Ez al zen ba nahiko ezaguna lehendik gizon honen jarrera baztertzalea eta chauvinista Estatuoko beste hizkuntzekiko? 'Abe-n', egunkarian argitaratzen dituen artikuluko irakurtzeak besterik ez zegoen. Eta hori nahiko ez balitz bezala, jakina da gizon honen ezinikusia Latinoamerikako bertako hizkuntzekiko.

Ez al zen askoz logikoagoa zorioneko domina hori eskaintzea katalan, galego edo euskararen defentsan azaldu diren akademiko edo idazle bati eta ez mantentzea Carreter jaunaren eskutan.

XABIER ARRUE
Bilbo

Kultur taldeen eskaria

Denok nabaritu dugu azken bi urteotan kaleko ekintzen (kontzertuak, ikastaroak, itte- rarak, jaialdiak...) falta ikaragarria. Guk herriari esprikazio bat emateko beharra sentitu dugu, beraz azken bi urte hauetan honako arazo hauek eduki ditugu gure programaketak aur- rera eraman ahal izateko:

1993. urtean kultur taldeek, urtero bezala, urtarrit edo otsailaren aurkeztu zituzten beraien programaketak aurrekontu eta guzti. Gure arretokuntak uztaile arte ez ziren eztabaidatu ere egin. Taldeak enteratu eta funtzionatzen hasi zirenerako iraila zen, gure programaketa, helburu eta asmo guztiak hiru hilabetetara mugatu zizkigutelarik.

1994. urtean, berriro ohi bezala, urtarrit eta otsaila bitartean talde batzuek proposamen eta aurrekontuak aurkeztu zituzten udaletxean. Udalak, arrazoi ezberdinetatik, kultur tal- deen diru laguntzak atzeratu egin dituzte gaiz egun oraindik ez dira 1994rako diru laguntzak onartu.

Hau dena eta gure protesta sutuena adie- razi ondoren herriarengatik lanean (dohain lanean) jarraitzeko planteamendu arin eta era- ginkor bat exijitu nahi diogu Udalarri:

- 1.- Urte haserako (urtarrila) talde guzti- ke jakin dezatela aurkeztutako programaketa- ren arabera dagozkien diru laguntzak.
- 2.- Diru laguntzak emateko dituzten irizpi- deak argitzea.
- 3.- Diru laguntzak erabaki eta gobernu- batzordera pasa aurretik kultur kontseilu- an gaiz hitz egitea eta talde bakoitzaren eritzi- a entzutea.

- 4.- Politikoaren jarrera aldatzea.
- 5.- Aurretik onartu dezala kultur kontsei- luko aktak jasotzea.

OTITA KULTUR ELKARTEA
ETA BESTE 14 ELKARTE
Andoain (Gipuzkoa)

Elgoibarren abenduaren 14an

Abenduaren 1ean HIESaren egun mundiala ospatu zen. Errotatxok, era batean edo beste- an, parte hartu zuten persona eta kolektibo guzti- ekin eskerrak eman nahi dizkie.

Pixkanaka genda orantzu doka HIESa de- no- ni dagokigula, eta denon artean HIESaren aurka burruka egin behar dugu; marjinazioa baztertu eta prebentzioa aurerra eraman- zez.

Elgoibarko herriar, eskolak, eta abar- ek, ondo hartu zuten ideia hau, izara txuriak lazo gorriarekin ezarri, baita ere mahai informati- boetara eta kontzentrazioa hurbilduz.

Hala ere, ezin dugu eskertu, baizik eta aurka egin udaletzeko buruzagien jarrera, nahiz eta Errotatxok espresuki eskatu izara txuria lazo gorriarekin jartzeko, hauek, gaia aipatu eta gero, ez jartzea erabaki zuten. Era penagarri- az, euren solidartetate falta nabarmendu, nahiz eta elgoibartarren erantzuna gero eta zabal eta positiuagoa izan 'Gure ordezka- rik' herriko sentimenduetatik urriti daudela adierazi zuten.

ERROTATXO PREBENTZIO
ELKARTEA
Elgoibar (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA

Araba-Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Bilboko Arriaga beteko da bapo, Bizkaia ta Araba proban direlako. Zortzi bertsolariak prest daude hortako, ahal dala bertso txarrik ez dute botako, denak txapela nahi-ta batentzat beharko.

JON AZPILLAGA



Egunkaria

Batzorde Parelkidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URIA
Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI
Zuzendariordea: LUZUIEN ETXEHARRERA
Gereñtas: FERMIN LAZKANO
Publizitateas: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK
Egoitza nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain
☎ 30 02 22 / Erredakzioa faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 07
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irutzi-ri dorrea) / 31011 Iruñea
☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Zabalburu Eparanzta, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo
☎ 41 0 40 / Faxa: 410 37 15
Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Postea
kutsutia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11